



**Jexuxmari Arieta, Itxaso Aizpurua eta Ramon Lamariano**

## **DYA-ko bolondresak**

26 eta 4na urte daramatzagu, hurrenez hurren, DYA-n. Azpeitiko basean 12 lagun inguru gaude eta batzbesteko adina 30 urte da. Era guztietako larrialdi sozialak (telealarma, etxeata-istripuak, larrialdi sozialak (telealarma, etxeata-ko gaisoak artatu), sokamuturra, kirol jarduerak, rallya, krossa, aizkolari probak... rasteoak

ibaian eta mendian, kontzertuak, hondartzan sorosle lanak... Baina, 112ra, deitu eta anbulantzia behar ezkeru, enpresa pribatuak daude, Gipuzkoa mailan behintzat. DYA-ko

base guztiek bolondres lanarekin funtzionatzen dute. Ordutegiak eta bete beharreko lanak ematen dizkigute eta libre bagaude izena ematen dugu. DYA barruan sail desberdinak daude eta Azpeitiko kasuak bezalaxe mugitzen gara inguruko beste herrietakoak kubritzera. Nolanahi ere, jendea konbentzitu da dago egiten duguna kobratuta egiten dugula. Lan honetan aritzeko gustatu egin behar zaizu, bete egin behar zaizu. Zenbait kasu eta egoterra oso gogorrak dira baina besteek laguntzeak ematen duen satisfazioak bultzatzen zaite lanean jarraitzera.

Gero, zenbait jenderekin sekulako pazientzia eduki beharra dago. Festetan jendea edanda dago eta, berdin zaie zu lanean bazaude. Pertsona bat hospitalera generaman eta jendea errepede erdian gelditzen zaizu oddarra jo-

tzeko. Anekdotarik ere ez zaigu falta: behin zerbitzu batetik bueltan, ertzaintza patrulla aurkitu genuen, errepedetik ardiak ezin baztertuta. Azkenean, gu berariei laguntzen jardun ginen, ardiak errepedetik kendu arte... Orain gutxiago, baina garai batean "grazioso" ateraldi oso izaten zen gezurrezko deiak eginez. Garai batekin alderatuta, orain boluntario falta handiagoa dago. Guk ikastaroak eta formakuntzak antolatzen ditugu. Iazko ikastaroa, ordea, bertan behera geratu zen, taldea ez zelako osatu. Beraz, jendea animatzeko formularen bat osmatu behar da. Bestalde, aipatu nahi dugu beiti eduki dugula Udalarekin harreman ona. Eta inauguratu dugun base berriarekin ere oso gustura gaudela. Hutsune gisa aipatuko genuke, eskolan oinarriko artapenak ez ematea.